

## Txapela Urriza eta Larrañagaren aldera, final bizi bezain ederrean

37-40 galdu zuen Endika Barrenetxeak, Matxin Illrekin batera. Galarreta beteta zela eta giro ederrarekin, urdinak nagusitu ziren, 27-20ko kontrako markagailuari buelta eman ondoren.

HERNANI ERREMONTEA

Arratsalde haundia bizitu zuen Galarretak, atzokoan. Sekulako giroa izan zuen frontoiak, bete-beteta, Binakako Txapelketaren finalarekin. Eta horretan lagundu zuten lau protagonista nagusiek, ikuskizun ederra eskaini baitzuten, partidu bizi-bizia jokatu: Urrizak eta Larrañagak jantzi zuten txapela azkenean, Matxin III eta Barrenetxea IVri irabazita (37-40).

Nahiko hotz ekin zioten finalari, eta hernaniarraren bi sakerekin eta Matxinek errebotera ondo jotako beste birekin egin zuten aurreneko tartea gorriek (6-2). Baina berdindu egin zen partidu gero, Matxinen hiru akatsekin (6-5); eta hortik aurrera, tanto zoragarriak jokatu zituzten denek: airez jaso eta dejadaz ederki errematatutakoa Urrizak, sakea bildu eta primeran bukatutakoa Matxinek, defentsan sekulako lana egin ondoren bi paretaz bukatutakoa Barrenetxeak... 10-11 aurreratu ziren aurrenekoz urdinak, eta berdindutakoan, pelota aldatu zuten gorriek.

Orduan egin zuen min gehien saketik, hernaniarrak, eta 18-11 egin zuten ihes. Tartean jokatu zuten, beharbada, partiduko tantorik onena, 37 pelotakadako: sekulako pelotak jaso zituzten Urrizak eta Barrenetxeak bereziki, eta hernaniarrak bukatu zuen, bi paret altua ba-



Larrañaga, Urriza, Matxin III eta Barrenetxea IV, sariak jasota, finalaren ondoren. Argazkia: Maialen Andres

rruan jarri eta sarera bidalita, ezin dotoreago. Ederra izan zen bolada horretako azkena ere, Matxinen eskutik, aurrean justu-justu pelota jaso eta txapa gainean utzita.

**Urrizaren nagusitasunari esker, partiduari buelta** 20-12koarekin lortu zuten abantaila haundiena gorriek, eta urdinak gerturatzaren saiatu arren, 25-18 eta 27-20 ere izan ziren aurretik. Baina orduan hasi zen Urriza, bere maila onena ematen, aurretik ondo aritu bazen ere. Tantoak dominatzen hasi zen, eta gorriek ezin bera jokoan sartzea saihestu. Iruindarrak ia segidan egindako lau tantorekin, eta Matxinen zenbait huts tarteko, bigarren aurreratu ziren urdinak (30-31)... eta gorriek ez zuten berriro berdinduko.

Jokoan nagusi eta tantoak bukatzen, 30-33ra haunditu zuen tartea Urrizak, baina defentsan sekulako pelotak jasota eta errebotetik tantoa borobilduta, txalo zaparrada haundiak jaso zituen Barrenetxeak ere, partidua bizirik mantenduz.

Hala ere, bereari eutsi zion Urrizak, eta 32-37koa jarri zuen markagailuan.

Tartea arriskutsua zen dagoeneko, baina amorerik eman gabe, defentsa nekazekin aritu ziren Barrenetxea zein Matxin, eta aukera izandakoan, bikain bukatu zuten; zoragarria Matxinek bi paretaz jotako bat. Eta tanto bakarrera jartzea lortu zuten horrela (36-37). Orduan, txartzat jo zuten epaileek, Barrenetxeak zabalean jotako pelota bat, eta berdinketarako aukeratik 36-38ra pasa ziren.

Saketik egin zuen 39garre-

na Larrañagak, eta huts nabarmena hurrengoan: Matxinen hankean jo zuen pelotak, eta minduta, aldageletara jo behar izan zuen aurrelariak. Handik bueltan, berehala bukatu zuen azkeneko tantoa Urrizak, ezker paretan bizi jota (37-40).

10 tanto egin eta 4 galduta bukatu zuen Barrenetxeak, eta 16 tanto egin eta 9 galduta Matxinek. Urrizak, berriz, 17 egin eta 5 galdu zituen, eta Larrañagak 10 egin eta 6 galdu

Atzokoarekin, bosgarren txapela du Urrizak, eta estreinakoa Larrañagak. **K**



Endika Barrenetxea pelota jotzen, finalean. Argazkia: Maialen Andres



## Ataungo finalean bihar, Urdangarin

HERNANI PALA

Ataungo Gabonetako Txapelketan aritu dira egun hauetan, Hernaniko hiru palista: Garazi Urdangarin, Eider Otaegi eta Ekhine Balerdi. Eta finalerako sailkatu da Urdangarin, Nahia Eizmendi aiarrarekin, ligaxkako bi partiduak irabazita. Bihar arratsaldean jokatu dute finala, Ataunen. Bestalde, Bizkaia Torneoan, finalerako sailkatu dira Amaia Araiztegi eta Amaia Irazustabarrena ere, ostiralean Leire Galdos eta Leire Etzaniz menderatuta (3-0).

## Gaurtik lau egunez itxita, Gaztelekua

HERNANI GAZTELEKUA

Itxita egongo da Hernaniko Gaztelekua, lau egunez, gaur hasi eta urtarrilaren 1era arte. Hilaren 2an bueltatuko dira, ideien zaparrada egiteko; eta oporraldirako beste bi ekintza berezi ere badauzkate oraindik: *Las ventajas de ser un marginado* filma, 3an; eta Irungo Karting Indoorra irteera, 4an.

## Paje izateko, oraindik aukera

HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Ostegunean banatu zituzten, Errege Magoen kabalgatan paje izateko trajeak; baina oraindik ere geratzen dira batzuk, interesa dutentzat. Horretarako, Berriak elkartearen bulegotik (Andre kale 30) pasa daitezke bila, datozen egunetan, goizeko 08:30etatik 13:30etara.

## San Silbestrerako postua, bihar

HERNANI ATLETISMOA

Abenduaren 31n izango da Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa; eta azkeneko izenemateak egiteko, postua jarriko dute bihar, Tilosetan, arratsaldeko 16:30etatik aurrera.

**TALLERES JUANTXO**  
Juan Ignacio Rodríguez

- Diagnosi unibertsala
- Suspentsioak, Balaztak
- Neumatikoetan aukera zabala
- Olio aldaketak, Mekanika orokorra
- Aire egokituaren karga eta konponketa

ESKAINITZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Asteleheneetik ostiralera:  
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00  
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com

**Tripontzi jatetxea**

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTZALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

**OINDI**

taberna

NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509

**Aitor Ruiz de Eguino**

OPARI ARTISTIKOAK  
ESKULTURA, PINTURA, ZERAMIKA  
Santa Barbara 58, Hernani  
www.aitorruizdeegino.com  
685 76 82 45



**GAUR** Berdintsu jarraituko du eguraldiak, gaur. Zerua oskarbi agertuko da, kostaldean goizean tarteka behe-lainoren bat agertu arren. Izotza botako du goizean, berriro. Ekialdeko haize ahula ibiliko da kostaldean, eta noraezean barnealdean. **Min.5° / Max.15°**

**BIHAR** ldo beretik, bihar ere. Giro lehorra izango dugu beste behin, eta eguzkitsu egongo da. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da, ahul, eta mendebaldera aldatuko da arratsaldean; orduan, behe-laino batzuk iritsi daitezke kostaldera. **Min.6° / Max.14°**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: Aldabe Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## 'Supertramps' filmaz gozatzeko aukera bihar, herriko txikienek

Marrazki bizidunetako pelikula jarriko dute, Xalto eskolako jangelan, arratsaldeko 18:00etan hasita. Doakoa izanen da.



Paulov, Ramon eta Chung-I-Fly, filmeko protagonistetako hirur.

### GOIZUETA ZINEA

Urteari agur esaten hasteko, zineaz gozatzeko aukera izanen dute bihar, Goizuetako txikienek. Izan ere, *Supertramps* pelikula jarriko dute Xalto eskolako jangelan, arratsaldeko 18:00etan hasita, euskeraz; eta doakoa izanen da sarrera.

Marrazki bizidunetako filma da *Supertramps*, Irusoin, Dibulitoon Studio eta Barton Filmsek ekoiztutakoa, EitBren partehartzearekin, 2004 urtean. Eta urte horretan, Goya Sarietan hautagai izan zen, marrazki bizidunetako film onenaren saria jasotzeko.

### Uso, labezomorro, arratoi eta katu bana, protagonista

Animaliak eta intsektuak dira protagonista, *Supertramps* pelikulan. Eta zehazki, laukote bi-

txi baten abenturak ezagutu eta bitutiko dituzte haurrek: Paulov, Europa ekialdeko arratoi bat; Chung-I-Fly, Asiako uso bat; Ramon, Karibeko labezomorro bat; eta Tano, arkakusoz jositako katu beltza. Tano gidari dutela, behartsu talde xelebrea osatzen dute lauek. Etorkinak dira gehienak eta etxegabeak guztiak. Beraien izaera dela eta, miserian bizi dira, baina egoera horretatik ateratzea dute amets.

Norarekin egingen dute topo orduan, Gabonetako gau hotz batean; eta ametsa errealitate bihurtzeko aukera ikusiko dute. Goi-mailako auzoetan bizi den kateme pertxenta bezain harropuzta da Nora, eta ezbehar bat

tarteko, galdu egin da. Lau protagonistek jakinen dute, bera etxera onik eramanez gero, sari ederra eskuratuko dutela, eta hori dela beraien miseriatik alde egiteko aukera. Bide horretan, ordea, oztoporik ere topatuko dute, hirian baitabilza Pitbull txakur gaizto bezain haundiak. Eta gainera, Norak dagoeneko ez du bere jabeekin bueltatu nahi, kaleko bizimoduak erakarritak. Nola lortu bere etxera bueltatzea? Misio zentzugabe bat asmatuko du Tanok, Nora kontentitzeko, asmoa bera etxera bueltatzea dela jakin gabe.

Jose Mari Goenagak eta Iñigo Berasategik zuzendua, 70 minutuko iraupena dauka filmak. **K**

## «Tamalgarria», EAJren egoitzako pintaketa

EH Bilduk salatu du, horrelako ekintzek ez dutela «inolako ekarpenik» egiten: «atzera begira jartzen gaituzte», adierazi du.

### HERNANI EH BILDU

Bere egoitza berria pinturarekin zikindu izana salatu du Hernaniko EAJk, aste honetan; eta

horren harira, bere gaitzespena adierazi du Hernaniko EH Bilduk: «tamalgarrizat baloratu dugu gertaera hau. Horrelako ekintzek, aurrera begira baino, atzera begira jartzen gaituzte, eta ez dute inolako ekarpenik egiten», adierazi du. Horregatik, deia luzatu du «errespetu eta begirunez lanean» jarraitzeko.

Eta era berean, azpimarratu nahi izan du, «Udalaren garbiketa lanen azkartasuna eta eraginkortasuna». **K**

## Santo Tomaseko barrikotea, Ur-Mian

### EREÑOTZU-GOIZUETA OKERRAK ZUZEN

Santo Tomas egunarekin, izan zen barrikoterik Urumea bailaran. Baina Ereñotzuko Ur-Mia elkartearen izan zen, aurrez jakinarazi bezala; eta ez Goizuetako Umore Ona elkartearen, Kronikaren atzoko alean argitaratu zen moduan.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**ESKERTZA**  
**Joaquina Zabaleta Balerdi**  
(Eusebio Arambururen alarguna)  
Orain egun gutxi hil zen  
**- Goian Bego -**

Haren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztioi eta baita elizkizunetara etorri zineten guztioi ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

Hernanin, 2019ko abenduaren 29an

II. URTEURRENA  
**Ana Isabel Izaguirre Elorza**

Joan zinen  
gu hemen utzita  
baina, jakin ezazu,  
inoiz ez zaitugula ahaztuko.

**ZURE ANAI-ARREBAK, ILOBAK ETA MITXEL**

Hernanin, 2019ko abenduaren 29an

II. URTEURRENA  
**Ana Isabel Izaguirre Elorza**

Urak dakarrena, urak darama.  
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

**ETXEKOAK**

Hernanin, 2019ko abenduaren 29an

### IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun neska euskaldunak, lan egingo luke tabernan, gaeuz. Deitu: 637 993 061 Sagardotegirako sukaldari eta sukaldari laguntzailea behar dira. Euskaldunak.

Deitu: 625 256 777

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



Maritxu Etxenik jaso du Lizeagako okindegiako saskia.



Xabi Zabaletarentzat izan da Akarregi poligonoko Dorronsorokoa.

## Maritxu Etxenik eta Xabi Zabaletak, Dorronsoreen saski bana

### HERNANI DORRONSORO OKINDEGIA

Urtero bezala, aurten ere zozketatu ditu Gabonetako bi saski, Dorronsoro Okindegiak, bere bezero guztien artean. Abenduaren 20an egin zuten zozketa, eta aurtengoan, Xabi Zabaletari tokatu zaio Akarregi poligonoko dendako saskia, eta Maritxu Etxenikeri Lizeaga auzoko dendakoa. Dagoeneko jaso dute tokatutako saria, biek ere, beraien dendan. Jasotako produktuekin, izango dute nahikoa gozagarri, Gabonetako egun hauetarako...

Era berean, Dorronsoro Okindegiak eskerrak eman nahi izan dizkie bere bezero guztiei, «zuen fideltasunagatik». Fideltasun hori eskertzeko zozketatzen ditu bi saskiak urtero, hain zuzen ere.